



## Indalecio Ojanguren Arrillaga Argazki Funtza



### Identifikazioa

<b>Erreferentzia-kodea</b>	ES20600AME_FIO
<b>Izenburua</b>	Indalecio Ojanguren Arrillaga Argazki Fonda
<b>Data</b>	1914 / 1966
<b>Deskribapen-maila</b>	01 - Fonda
<b>Bolumena</b>	Zuri-beltzeko 7.537 argazki-kopia, 13x18 cm-ko neurrikoak –jatorrizko argazkiak Foru Aldundiari eman zizkion Ojanguren sendiak, eta kopia horiek Diputazioaren argazki-laboretegiaren arduradun Tomás Martínez Lubianok eginak dira–. Feliciano Castrillo Ortuosteren argazkien 500 kopia, 30x40 cm-ko neurrikoak. 150 egile-kopia.

### Testuingurua

#### Ekoizlea

Indalecio Ojanguren Arrillaga.

#### Aipamen biografikoa

Indalecio Ojanguren (Eibar, 1887-1972). Argazkilari profesionala izan zen, eta Euskal Herriko mendizaletasunean aitzindaria. La Marcial musika bandako musikaria ere izan zen; tronboi irristailuduna jotzen zuen. GAC fabrian hasi zen lanean, eta errebolberren katuak muntatzen espezializatu zen.

Lehen Mundu Gerran Eibarren izandako krisiaren ondorioz, lanbidea utzi zuen, eta argazki-estudio bat zabaldu zuen 1914an. Estudioko argazkiak egiteko baino gehiago, mandatuak



jasotzeko zabaldu zuen. Informazio orokorreko eta kirol-informazioko Euskal Herriko, Madrilgo eta Bartzelonako hogeit hamar argitalpenentzat jarduen zuen lan horretan, eta haren argazkiak Argentinako euskaldunengana ere iritsi ziren. Mendizaletasunari dagokionez, Ojanguren, "arrano argazkilaria", euskal alpinismoaren aitzindarietako bat izan zen, eta grafikoki eman zuen haren berri. Mendiko Euskal Federazioa sortu zutenetako bat izan zen. 1924an. Gainera, Eibarko Klub Deportiboko bazkide sortzaileetako bat izan zen eta bertako lehendakari. Lehen gipuzkoarra izan zen Ehun Mendien Lehiaketa amaitzen; zortzi aldiz amaitu zuen hori.

Indalecioren ofiziala Servando Juez argazkilaria izan zen urte askoan, eta 1914an, argazkilaria hark eskatuta, hainbat eta hainbat argazki atera zituen, gerora hainbat argitalpenetan atera zirenak. 1962an, sute batek Indalecioren estudioa suntsitu zuen eta artxiboaren zati handi bat galdu zen. Bizitza osoan, aitormen asko jaso zituen argazkilaritzan egindako lanarengatik eta mendiko ibilerengatik; baina, batez ere, azken urteetan: hainbat omenaldi egin zizkioten.

### **Artxiboaren historia**

Indalecio Ojanguren argazkilaria estudioa Dos de Mayo kalean zegoen, herriaren erdialdean, baina erre egin zen, eta 1965ean etxe osoa bota zuten. Gipuzkoako prentsak argazkilaria artxiboa salbatzeko deia egin zuen. 1962an, Gipuzkoako Foru Aldundiak artxiboa eskuratzeko eskaintza bat egin zion, eta argazkilaria onartu egin zuen. Hala, José de Arteche, Foru Aldundiko orduko liburuzaina, argazkilaria artxiboaren bila etorri zen Eibarrera, bi aldiz. Zurezko kaxa batzuetan zegoen jasota artxiboa. Hala ere, 1975eko ekainaren 26an, Eibarko Udalak hainbat bider eskatu ondoren, Diputazioak baimena eman zuen artxiboa Diputaziotik udaletxera ekartzeko, eta bertan gordetzen uzteko erabakia hartu zuen, zenbait baldintza jarrita. 1977ko azaroaren 10a arte ez zuten bete erabakia. Orduan, hamabost kaxa jaso zituzten Eibarko udaletxean, barruan plakak eta paperezko argazkien bilduma bat zituztenak. Negatiboak inolako inbentariarik egin gabe biltegitatu zituzten, oso lan garestia baitzen, eta Diputazioak, bildumaren jabeak, berriro eskatu zituen. 1981eko abuztuaren 28an jaso zituzten Diputazioan; hala izenpetu zuen Máximo Sanz Martínez jaunak, Diputazioko Kultura Saileko legelari-buruak. 80ko hamarraldiaren amaieran, Diputazioak azaleko inbentarioa egin zuen eta plaken kopiak egin zituen. Gaur egun, Tolosako Artxibo Orokorrek dauka Indalecio Ojanguren artxiboa, eta hark kudeatzen du.

Bestalde, 1988an, Indalecio Ojanguren omenez udalaren kultur aretoan egindako erakusketa baten harira, 600 bat egile-kopia utzi zizkioten eibartarrek eta argazkilaria beraren seme Eli Ojanguren udalari. Feliciano Castrillo Eibarko argazkilaria horiek guztiak hartu, eta 30x40 neurriko argazkiak egin zituen, handitzeko. Batzuk jatorrizko plaka erabiliz handitu zituen.

### **Sartzeko era**

Zuri-beltzeko 13x18 neurriko 7.537 argazki-kopiak 1990eko uztailaren 5ean jaso zituen Eibarko Udalak, zortzi kaxatan. Horien jatorrizko argazkiak Tolosako Artxibo Orokorrean daude. Fondoko gainerako argazkiak Eibarko herritarrek eman zituzten, Eibarko Udalak 1988an antolatutako omenaldi-erakusketaren harira. Horiek egile-kopiak eta Feliciano Castrillo Ortuoste argazkilaria tamaina handiagoan kopiatutako hainbat dira. Egile-kopia horietatik gehienek zigilu lehorra dute.



## Edukia eta egitura

### Irismena eta edukia

Eibar: bizitza soziala, politikoa eta erlijiosoa, gerra eta berreraikuntza, pertsonak, baserriak eta oinetxeak. Etnografiako argazki dokumentalak, mendiak, eta Gipuzkoako eta Bizkaiko herri guztien eta Arabako eta Nafarroako hainbaten argazki panoramikoak, tartean udalbatzak eta armarriak direla. Bilboko Burdin Hesia.

### Antolaketa

Gaika dago antolatuta, eta zenbakituta.

## Sartzeko eta erabiltzeko baldintzak

### Sartzeko baldintzak

Izaera publikoa duen agiri-fondoa. Edozeinen eskura dago, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/90 Legeak jartzen dituen mugekin.

### Erreproduzitzeko baldintzak

Dokumentuak erreproduzitzeko aukera dago, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak esaten duen baldintzetan. Erreproduzitu nahi diren irudien jatorrizko argazkiak Tolosako Artxibo Orokorrean baldin badaude, zerbitzu hartara bideratzen dira erreproduzio-eskaerak.

### Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak

Egoera onean dago.

### Deskripziorako tresnak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1987an (?) egindako inbentarioa. Sei gaitan banatuta dago hori: Gipuzkoa I; Gipuzkoa II; Bizkaia III; Bizkaia IV; Araba, Nafarroa, Pilotariak eta Beste V; Armariak, Oinetxeak eta Euskaldunak VI; Mendiak VII; Mendiak eta Burdin Hesia VIII. 1988an erakusketaren harira emandako argazkien gaikako inbentarioa.

## Gehitutako dokumentazioa

### Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokapena

Jatorrizko dokumentu gehienak Gipuzkoako Artxibo Orokorrean daude. Kopia batzuen jatorrizko dokumentuak non dauden ez da ezaguna.

### Argitalpenen oharra

Ojangurenen argazki argitaratuak

- . - "Albúm Descriptivo de Gipuzkoa". Picabea. Donostia, 1917.
- . - "Eibarko Argazkiak". Donostiako Udal Aurrezki Kutxa, 1990.
- . - "Eibarko Klub Deportiboa. 75 urteurrena. 1924-1999". Club Deportivo Eibar, 1999.

Erreferentzia biografikoak:

- . - ARTECHE, José: "Ojanguren", Zeruko Argia, 163 zkia., 1966.
- . - SAN MARTIN, Juan. "Tres aspectos de Indalecio Ojanguren", Pyrenaica, 1967: 41-47 or.





- . – BILBAO FULLAONDO, Josu. "Fotoperiodismo en Bizkaia". BBK, Bilbo, 1996.
- . – VALDERREY, José. "El fotografo Aguila" in "Pioneros del Montañismo Vasco". Etor Ostoa, Lasarte-Oria, 1996.
- . – Eibar Argipean. Castrillo Ortuoste Fondoa. Eibarko Udala, 2002.
- . – DE LA GRANJA SAINZ, José Luis: El Oasis Vasco. Madril: Ed. Anaya, 2007.
- .- GUTIERREZ AROSA, Jesús. La Guerra Civil en Eibar y Elgeta. Eibarko Udala, 2007.

## **Deskripzioaren kontrola**

### **Arauk**

ISAD(G) arauan oinarritutako deskripzioa, Udal Artxiboak garatutako jarraibide espezifikoen arabera.

### **Deskripzioaren urtea**

2008